

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Xarmaz

LURRINEN XARMA... Usainek dugun eta animalienara garamatzatela uste dut. Neu behintzat bai, ametsetara. Zakur ametsetara ote? Eta xarmak xarmara. Xarma, *Carpinus betulus*, gure zuhaitz ezezagunenetakoa zaigu. Batzuek pago-lizarrara ere deitzen diote. Europa freskoko zuhaitza da; kontinentearen erdi aldean hedatua da eta mendi garaiak gustatzen zaizkionez -600 metrotik gora bizitzea gustatzen zaiola esan ohi da- Pirinioei segika sartua da Euskal Herrian. Iberiar penintsula osoan berezko xarmak Bortzirietan, Arantzako mugan bertan Igantziko herri lurretan dagoen San Juan Xar leize-ermitaren inguruan eta Bidasoa ibairako pendizetan bakarrik omen ziren. Gipuzkoan ere, Alegiako Arterrekaren ibarreko toki berexi batean 200 metro inguruko garaieran ere ziento erdiren bat aleko basotxo bat badela jakin da, ordea; horixe berezia, hori baino hegoalderago edo mendebalderago espezie hau ez da aurkitzen. Espezie arraro bihurtua dugu, eta desagertzeko arriskuraino eramán dugunez Nafarroako baso erlikia horri euste-



Xarma, *Carpinus betulus*.

ko Natur Erreserba izendatu zuten 1987an eta EAEko Espezie Mehatxatuen katalogoan "galtzeko arriskuan" daudenen zerrenda gorrian dago. Ez da harrizkoa, bere egurra estimu handitan izan baita, sutarako bezala zuretarako. Frantzian ere ez dute saltzeko eta bertako basoen %6 bere du. Iparraldean ezagunxeagoa da, Uztaritzetik harantz behinik behin.

Gaur ezezaguna eta ia galdua badugu ere garai batean, aspaldi, Behe Paleolitoan, duela 150.000 urte baino lehenago, oso ugaria omen zen xarma lurralde honetan. Zestoako Iri-

kaitz leizekoa bezalako garai hartako aztarnategietan egindako indusketetan azaldutako polen arrastoen frogetatik jakin daiteke, nonbait.

Igantzi eta Arantza arteko San Juan Xar izeneko leize-ermitaren aldamenean ur miragariak ematen dituzten iturriak omen dira.

Miraria xarma bera oraindik ere gure artean izatea, da. Leize eta zuloen inguruetan besterik ez bada ere...



Harizetik platanora

Garai batean haritzak (*Quercus robur*) zabal eta naro izango ziren toki batean, urats iturrien sufre usain eta zapore gozoen atzetik ibilia naiz. Aretxabaletan. Neguko egun argian urats-urak ahosabaia lehortutako gozamenen nabilela, danba!, platano torturatua hortzen aurrean. Udazkenean, agian udan, batek daki, goizegi inausitako platanora (*Platanus x hispanica*) negu aurretik adar berritua, hotza etorri denean adar denak erreta. Erreserbarik gabe kale gorrian, inausketa zauriak bizirik...

Torturaren aurkako protokolo, biktima eta antzekoekin ahoa neurri ari garenean haritza edo platano izan alde ederra dago, zenbait tokitan behinik behin!

